

**9/2023 TXOSTENA, APIRILAREN 18KOA, KONTRATAZIO PUBLIKOAREN A HOLKU
BATZORDEAREN BATZORDE IRAUNKORRARENA.****XEDEA: DEBABARRENA ESKUALDEKO MANKOMUNITATEAREN HIRI-HONDAKINAK
GAIKA BILTZEKO ZERBITZU-KONTRATUAREN KOSTUEN EGITURA ETA PREZIOAK
BERRIKUSTEKO FORMULA.****I.- AURREKARIAK.**

2023ko martxoaren 16an, Ondare eta Kontratazio Zuzendaritzaren erregistrora Debabarrena eskualdeko mankomunitatearen eskaera bat iritsi zen, Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordeari zuzendua, eta bertan eskatzen zion hiri-hondakinak gaika biltzeko zerbitzu-kontratuaren kostuen egiturari eta prezioak berrikusteko formulari buruzko txostena egin zezan, Ekonomiaren Desindexazioari buruzko martxoaren 30eko 2/2015 Legea garatzen duen otsailaren 3ko 55/2017 Errege Dekretuaren 9.7 artikuluari jarraikiz.

Horretarako, lizitazioaren objektua den zerbitzuari buruz egindako azalpen-memoria bidali zen. Bertan azaltzen da zerbitzu-prestazioaren barnean daudela edukiontzietako papera eta kartoiak, ontzi arinak eta pilak bildu eta garraiatzeko zerbitzuak, eta aipatutako zerbitzuak preskripzio teknikoen agirian ezarritako baldintzetan emateko egin beharreko zeregin osagarriak. Zerbitzu-prestazioa Debabarrena eskualdeko mankomunitatean emango da, eta udalerrri hauek osatzen dute: Mallabia, Ermua, Eibar, Soraluze, Elgoibar, Mendaro, Deba eta Mutriku. Lurralde-eremu hori aplikatzekoa zaie hiri-hondakinen bilketa- eta garraio-lanei, eta ez nahitaez hondakinak pisatu, entregatu eta Debabarrenan edo handik kanpo egin daitezkeen bestelako eginkizunei.

Kontratuaren gauzate-epea 8 urtekoa da eta urtebeteko 2 luzapen izan ahalko ditu. Jarduerarekin hasteko aurreikusitako epea 2023ko abenduaren 1a da.

SPKLren 29.4 artikulua bigarren paragrafoan jartzen duenez, prezioen berrikuspena, berriz, otsailaren 3ko 55/2017 Errege Dekretuko 10. artikuluan ezarritakoa izango da, eta hala aurreikusiko da kontratu-lizitazioaren administrazio-klausulen agirietan (errege-dekretu



horren bidez garatu zen Espainiako ekonomiaren desindexazioari buruzko martxoaren 30eko 2/2015 Legea).

Halaber, 55/2017 Errege Dekretuaren 9.7 artikuluari jarraikiz, sektoreko 5 operadore ekonomikori eskatu zitzaien kostuen egitura bidaltzeko, eta, jasotako informazioan oinarrituta, kostuen egituraren proposamena egin zen eta jendaurreko informazioaren izapidea egin zen, eta ez da inolako alegaziorik egon (2022ko martxoaren 2ko GAO, 41. zk.).

II.- ESKUMENA.

Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren kontratazio-araubideari buruzko uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuari hamabigarren xedapen gehigarria gehitu zaio Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren kontratazio-araubidea bigarrenez aldatzeko abenduaren 13ko 154/2022 Dekretuaren bidez (abenduaren 28ko EHAA, 247. zk.).

Hamabigarren xedapen gehigarri horretan jasotzen da Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordeko Batzorde Iraunkorrari dagokiola Espainiako ekonomiaren desindexazioari buruzko martxoaren 30eko 2/2015 Legea garatzen duen otsailaren 3ko 55/2017 Errege Dekretuaren 9.7 artikulua araberako nahitaezko txostena egitea. Horretarako, hogeit eguneko epea izango du, toki-erakundeen eta haren mendeko organismoen edo entitateen txostenaren eskaera jaso eta hurrengo egunetik hasita.

Irismenari dagokionez, txostena Espainiako ekonomiaren desindexazioari buruzko martxoaren 30eko 2/2015 Legea garatzen duen otsailaren 3ko 55/2017 Errege Dekretuaren 9.7 artikuluari dagozkion alderdietara mugatzen da.

III.- JURIDIKOKI KONTUAN HARTZEKOAK

Lehenik eta behin, adierazi behar da kontratu publikoetako prezioen berrikuspenaren erregulazioa (zeina Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legean jasota dagoen –Espainiako ordenamendu juridikora Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB Zuzentarauen transposizioa egiten duena–) Espainiako ekonomiaren desindexazioari buruzko martxoaren 30eko 2/2015 Legean xedatutakora egokitzen dela. Ildo horretan, prezio-berrikuspina ez da



indize orokorren arabera, berariazko indizeen arabera baizik, eta indizeok, berriz, kontratatutako prestazioaren kostu-osagaiak adierazten diren formulen arabera.

Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen (aurrerantzean, SPKL) 103. artikularen arabera, sektore publikoko kontratuen prezioak aldizka eta aurrez zehaztuta berrius daitezke, egoera jakin batzuetan, alde aurretik justifikatuta eta Espainiako ekonomiaren desindexazioari buruzko martxoaren 30eko 2/2015 Legea garatzen duen otsailaren 3ko 55/2017 Errege Dekretuan (55/2017 ED) ezarritakoarekin bat etorriz.

Era berean, 55/2017 EDaren 9. artikulua, «administrazio publikoen obra-kontratuak eta armamentua eta ekipamendua fabrikatzeko hornidura-kontratuak ez diren sektore publikoko kontratuetan prezioak aldizka eta aurrez zehaztuta berrikustea»ri buruzkoak, xedatzen du kontratu horien prezioak aldizka eta aurrez zehazturik berrikusi behar direla, kontratua formalizatu zenetik bi urte igaro ondoren eta, gutxienez, zenbatekoaren ehuneko 20 bete ondoren, betiere kontratuaren inbertsioa berreskuratzeko epea bost urtekoa edo gehiagokoa bada, eta hala aurreikusten bada baldintza-agirietan, zeinek aplikatu behar den berrikuspen formula zehaztuko baitute.

Halaber, artikulua kontratazio-espeditari erantsitako memoriak izan behar duen edukia finkatzen du, baita baldintza-agirietan zehaztu behar diren prezioen berrikuspenari buruzko aurreikuspenak ere, eta ezartzen du berrikuspena ezin dela kontratuaren inbertsioa berreskuratzeko epea pasa ostean egin.

Aipatutako 55/2017 EDaren 9. artikularen 7. apartatuaren arabera, bost milioi euroko edo gehiagoko prezioa duten kontratuetarako, kontratazio-organoak kostuen egitura baloratzeko nahitaezko txosten bat sartu behar du kontratazio-espeditian.

Aipatutako 55/2017 EDaren 3., 4. eta 7. artikuluek prezioen aldizkako eta aurrez zehaztutako berrikuspena eta formula aplikagarrien zehaztapena arautzen duten printzipio eta arau orokorrak jasotzen dituzte, besteak beste:

- Jarduera gauzatzeko edo kontratuaren xedea betetzeko kostu zuzeneko, ezinbesteko eta esanguratsuekiko (>% 1) lotura.
- Ondorioz, berrikuspenak gorantz edo beherantz egin ahal izango dira, kostu horien aldakuntzaren arabera.



- Eskulanaren kostua kontuan hartzen bada, aldakuntza ezingo da izan sektore publikoaren zerbitzura dauden langileena baino handiagoa, Estatuko Aurrekontu Orokorretan ezarritakoaren arabera.
- Ez dira inolaz ere berrikusiko amortizazio-kostuekin lotutako kostuak, finantza-kostuak, gastu orokorrak edota egitura-gastuak, ez eta mozkin industrialak ere.
- Operadore ekonomikoaren kontrolpean ez dauden kostuen aldaketak soilik sartu ahal izango dira berrikuspen-erregimenetan. Kostuen aldaketak operadorearen kontrolpean daudela ulertuko da zenbait praktiken bidez saihestu ahal izan direnean (adibidez, hornitzailez aldatuta)
- «Enpresaren efizientzia eta kudeaketa ona»ren printzipioaren arabera, berrikuspen-erregimenak ondo kudeatutako enpresa efiziente batek dagokion jarduera garatzeko jasan beharko lukeen kostu-egitura hartuko du erreferentzia gisa, aplikatu beharreko araudiak edo kontratuaren klausulek eskatzen duten gutxieneko kalitate-mailarekin.
- Era berean, espedientean derrigor txertatuko den memoria batean justifikatu beharko da kontratuaren kalitate-baldintzak eta funtsezko betebeharrak betetzen direla. Hori ezinbestean egin beharko da berrikuspenera egin ahal izateko.

Euskal Autonomia Erkidegoan, Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordeko Batzorde Iraunkorrari dagokio hura bidaltzea. Helburu horretarako, kontratazio-organoak honakoak egin behar ditu: a) Sektoreko bost operadore ekonomikori beren kostuen egitura bidal diezaioten eskatu; b) Jardueraren kostuen egituraren proposamen bat egin, ahal den neurrian, operadore ekonomikoen erantzunetako informazioa baliatuz; c) 20 egunez, kostuen egituraren proposamena jendaurrean jarri; d) Kostuen egituraren proposamena alde aurretik aipatutako Batzorde Iraunkorrari bidali.

SPKLren 103. artikulua 2. apartatuaren arabera, «prezioen aldizkako eta aurrez zehaztutako berrikuspenera honako kasu hauetan bakarrik izango da posible: obra-kontratuetan, Administrazio publikoen armamentua eta ekipamendua fabrikatzeko hornidura-kontratuetan, energia-hornidurako kontratuetan eta inbertsioa berreskuratzeko bost urteko edo gehiagoko epea duten kontratuetan. Epe hori aipatutako Errege Dekretuan ezarritakoarekin bat etorri kalkulatu da».

Horri dagokionez, otsailaren 3ko 55/2017 Errege Dekretuaren 10. artikulua Espainiako ekonomiaren desindexazioari buruzko martxoaren 30eko 2/2015 Legea garatzen du, eta inbertsioak berreskuratzeko epea kalkulatzeko formula matematikoa zehazten du:

$$\sum_{t=0}^n \frac{FC_t}{(1+b)^t} \geq 0$$

Bertan:

- t zenbaki osotan neurtutako urteak dira.
- FC_t t urtean espero den kuxako fluxua da.
- b deskontu-tasa da; haren balioa izango da azken 6 hilabeteetan Estatuaren 10 urterako zorrak bigarren mailako merkatuan batez beste izandako errendimendua, oinarrizko 200 puntuko diferentzian gehituta.

IV. ANALIZA DITZAGUN DEBABARRENA ESKUALDEKO MANKOMUNITATEAN HIRI-HONDAKINAK GAIKA BILTZEKO ZERBITZU-KONTRATUAREN KOSTUEN EGITURA ETA PREZIOAK BERRIKUSTEKO FORMULA.

IV.1. Aurkeztutako dokumentazioa

Debabarrena eskualdeko mankomunitateak honako agiri hauek bidali dizkio Euskadiko Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordeari:

- Debabarrena eskualdeko mankomunitateak 2023ko martxoaren 16an egindako eta mankomunitateko presidentek sinatutako eskaera. Eskari horren bidez, Euskadiko Autonomia Erkidegoaren Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordeari eskatu zitzaion balorazio-txostena egiteko Debabarrena eskualdeko mankomunitatean hiri-hondakinak gaita biltzeko zerbitzu-kontratuaren kostuen egiturari eta prezioak berrikusteko formulari buruz (ESP. 3/23-D).
- Mankomunitatearen Batzar Orokorraren 2023ko otsailaren 22ko bilkura bereziaren akta. Bertan onartu zuten izapidetu egingo zirela gaikako bilketen zerbitzu-kontratazioaren baldintza-agiri arautzaileetan sartu beharreko kostuen egitura eta prezioak berrikusteko formula; egindako izapideak onartu eta baliozkotu egin ziren; eta presidenteari gaikuntza eman zitzaion kostuen egitura onartzeko eta kontratazio-aholku-organoari bidaltzeko.
- Zerbitzu teknikoek egindako txostena Debabarrena eskualdeko mankomunitatean hiri-hondakinak gaita biltzeko zerbitzu-kontratuaren lizitazio-espeditatearen kostuen



egituraren proposamena egiteko, 2023-02-02an sinatuta eta 2022-05-12ko 2022-442 erregistro-zenbakiarekin.

- Debabarrena eskualdeko mankomunitatearen kostuen egituraren proposamenaren informazio publikoaren iragarkiak, hemen argitaratuak 2023ko otsailaren 15eko GAOn, 31. zk., eta 2023ko otsailaren 13ko BAOn, 30. zk.

IV.2. Beharrezkoa den dokumentazioa

Kontratazioko Aholku Batzordeak dokumentazio osagarria eskatu zuen 2023-03-17an, eta Debabarrena eskualdeko mankomunitateak entregatu zituen SIR erregistro elektronikoan 2023-03-27an.

- 3/23-D espedienterako kontratuaren lizitazioaren baldintza-agiriak: Administrazio-klausula partikularren agiriak (aurrerantzean, AKPA) eta preskripzio teknikoen agiriak (aurrerantzean, PTA). Behin-behineko agiriak dira eta onartzeke daude.
-
- Jendaurreko epean erreklamaziorik aurkeztu ez izanaren ziurtagiria, Debabarrena eskualdeko mankomunitateko idazkari kontu-hartzaileak sinatutakoa 2023-03-21ean.
- 2023-02-02ko egitura-txostenaren huts-zerrenda (nahitaezko txostena egiteko eskaerarekin batera bidalitakoa 2023-03-16an).
-
- Inbertsioaren berreskurapenaren zati diren kontzeptuen azterlan ekonomikoa (zerbitzuaren urteko kostua, hasierako inbertsioa, p-c salmentengatiko diru-sarrerak).
-
- Sektoreko operadore ekonomiko batzuei kontsulta egin eta gero, haiek kostuen egiturari buruz eman zituzten datu guztiak eskatu zitzaizkion mankomunitateari, egiaztatzeko efizientziaren eta kudeaketa onaren printzipioak aplikatzen direla. Informazioa 2023-03-28an jaso genuen. Kontsultatutako enpresen artetik, hauek aurkeztu zituzten beren kostu-egituraren datuak (2023ko urtarrilean):

- URBASER SA	Ez zuen erantzun
- FCC MEDIOAMIENTE SAU	Erantzun zuen
- PREZERO GESTIÓN DE RESIDUOS SA	Erantzun zuen
- - SERBITZU ELKARTEA SL	Erantzun zuen
- TRAECO MEDIOAMBIENTAL SL	Erantzun zuen

IV.3. Azterlan ekonomikoaren berrikuspena

Mankomunitateak aurkeztutako azterlan ekonomikoak gastu eta diru-sarrera osagarri hauek baloratu eta justifikatzen ditu:

- Zerbitzua egiteko hasierako inbertsioaren kostuen zenbatespena.

Behin-behineko PTAn jasota dagoenez, urteko zerbitzu-kostuaz gain, 5 ibilgailu, makinak eta beharrezkoak diren bestelako bitartekoak ere atxiki behar dira, eta guztiek aipatutako baldintzak bete beharko dituzte. 5 ibilgailu horientzat 901.500 euroko inbertsioa egin behar da (BEZa kanpo).

- Papera eta kartoia saltzeagatik sor daitezkeen diru-sarreraren zenbatespena.

Behin-behineko AKPAren 3. apartatuaren arabera, bildutako paper eta kartoizko hondakin guztiak enpresa adjudikaziodunaren jabetzakoak dira, eta birziklatu, saldu eta abar egin ditzake, eta aukera du orobat hondakinok balorizatzekeo bilketaren maiztasuna aldatzeko. Urteko zenbatetsitako kantitatea 1584,718 tonakoa da. Datu hori mankomunitatearen aurretiazko esperientziarekin onartutakoa da, eta papera eta kartoiaren urteko salmenten kalkulaturako zenbatekoa 97.000,00 eurokoa da.

- Zerbitzuaren urteko kostuaren analisisa, datu hauen deskribapenarekin:

- Zerbitzuari atxikitako langileen kostuak (gutxienez 10 langile beharko dira). Mankomunitatearen unitate-kostuak kontuan hartuta ezarri da eta urteko gehikuntza-aurreikuspena eta langileen kostuen batez besteko balioa enpresa erreferenteen kostuen egituren arabera ezarri dira.
- Erregaien kostuak, hondakinak biltzeko aurreikusitako ibilbideen arabera, gutxienez 5 ibilgailurentzat, urteko kilometrajearekin eta kontsumoen eta erregaien prezioen zenbatespenarekin.
- Ibilgailu eta edukiontzien mantentze-lanen kostuak: 5 ibilgailu eta 147 pila-edukiontzi, iglu motako 99 edukiontzi eta CL motako 543 edukiontzi zenbatetsiko dira, asteko bilketa-taularen arabera. Behin-behineko PTAn zehaztu da garbiketa eskuz edo mekanikoki egingo den, garbiketa horien maiztasuna, eta kontuan hartu beharreko gainerako irizpideak.

Mankomunitatea bere ibilgailu-flotarekin duen esperientzian oinarritu da kostu horiek kalkulatzeko. Honela ezarri dira:

Ibilgailuak mantentzeko lanak	53.287,56 euro
Edukiontziak garbitzea *	21.581,07 euro
Edukiontziak mantentzeko lanak	19.682,18 euro
MANTENTZE-LANEN KOSTUAK GUZTIRA	94.550,81 euro



- Bestelako askotariko kostu materialak. Kontuan hartzen dira enpresa erreferenteen kostuen egituren batez besteko balioak.
- Amortizazioen kostua, gauza hauek hartuz kontuan: zerbitzuari atxikitako ibilgailu berrien eskuratzeak, eta bestelako ibilgetuen amortizazioa (informatika-ekipoak, inprimagailuak, altzariak...) 8 urteko amortizazio-aldirako. 901.500,00 euroko inbertsiorako 113.640,09 euroko amortizazio-kostua zenbatetsi da.
- Finantza-gastuak (enpresa adjudikaziodunaren zorpetze-mailaren arabera izango dira). Makinen inbertsioaren % 60 finantzatzeko bezain beste zenbatetsiko dira.
Behin-behineko AKPAren 6. apartatuan azaltzen da finantzaketaren % 100 Debabarrena eskualdeko mankomunitatearen kontura izango dela.
- Gastu Orokorren eta Industria Hobariaren kontzeptuak batez besteko balioarekin ezarri dira, sektoreko lau enpresen kostuen egituren arabera.
Hurrengo apartatuan batez bestekoen taula kalkulatu da berriz ere.

Azterlan horretatik eskuratu dira kontuan hartzeko datuak, bai kontratuaren urteko balio zenbatetsia kalkulatzeko, bai eta inbertsioaren itzultze-denbora kalkulatzeko ere.

Hauek dira PTAREN 3.4 apartatuan eta AKPAren 14. apartatuan jasota dauden eta behin-behineko baldintza-agirietan sartu diren analisi ekonomikoaren datuak:

KONTRATUAREN BALIO ZENBATETSIA		
1	Langileen kostuak	580.713,41 euro
2	Erregaia	106.372,86 euro
3	Ibilgailuak eta edukiontziak mantentzeko lanak	94.550,81 euro
4	Bestelako kostu materialak *	28.915,40 euro
5	Gastu orokorrak (GO)	46.520,53 euro
6	Mozkin industrialak (MI)	32.088,42 euro
7	Amortizazioak	113.640,09 euro
8	Finantza-gastuak	20.752,56 euro
GUZTIRA (BEZik gabe)		1.023.554,08 euro
<p>* Bestelako kostu materialen barnean hauek daude: Jantzien gastuak + Ibilgailuen aseguruak eta zergak + Komunikazio-, jarraipen-, eta kontrol-sistemak eta informatika-ekipoak + Bestelako kostuak (bulegorako materiala, tailerreko materiala eta tresnak, instalazio finkoen mantentze-lanak, ur- eta elektrizitate-hornidura...)</p> <p>OHARRA: taula zuzenduta dago, mankomunitateak emandako huts-zerrendaren arabera.</p>		

LIZITAZIOAREN OINARRIZKO AURREKONTUAREN BANAKAPENA			
	PREZIO UNITARIOA	AURREKONTUA URTERO	
Oinarria	8,1874 €	451.985,42 €	1 prezio unitarioa Ontzi arinen edukiontzietako gaikako bilketa.
BEZa (% 10)	0,8187 €	45.198,54 €	
Guztira	9,0061 €	497.183,96 €	
Oinarria	8,6535 €	456.039,45 €	2 prezio unitarioa Paper eta kartoiaren edukiontzietako gaikako bilketa
BEZa (% 10)	0,8654 €	45.603,9450 €	
Guztira	9,5189 €	501.643,3950 €	
Oinarria	10,6486 €	18.529,21 €	3 prezio unitarioa Pilen edukiontzietako gaikako bilketa
BEZa (% 10)	1,0649 €	1.852,92 €	
Guztira	11,7135 €	20.382,13 €	
Oinarria		926.554,08 €	Lizitazioko urteko oinarrizko prezioa
BEZa (% 10)		92.655,41 €	
Guztira		1.019.209,49 €	

IV.4. **Sektoreko operadore ekonomikoen kostuen egituraren berrikuspena**

55/2019 EDn jasotako enpresen efizientzia eta kudeaketa onaren printzipioei buruzko 4. artikulua eta 9. artikularen 7. apartatuaren b) letra justifikatzeko, bi operadore ekonomikoen kostuen egiturari buruzko batez besteko datuak konparatzen dira mankomunitateak egindako kostuen egiturarekin. Gomendagarria zatekeen kontsulta zabaltzea, bost operadore ekonomikoren erantzunak jaso arte. Hala eta guztiz ere, lau enpresen kostuen egiturak berrikusi eta gero ondorioztatu da antzeko balioak dituztela, eta batezbestekoak nahikoa adierazgarriak dira efizientzia-printzipioa justifikatzeko.

Kontuan hartu behar da bi operadore ekonomikok aurkeztu dituzten datuetan ez dituztela bereizi mozkin industriala (aurrerantzean, MI) eta Gastu Orokorrak (aurrerantzean, GO), eta horregatik, ezberdintasunak daude kostuen egituretan. Interpretatu daiteke kontzeptu horiek eragina dutela bestelako kostuetan. GO eta MI ez dira kostu berrikusgarriak, inola ere, baina kostuen egituran sartu behar dira. Kostuen egitura antzekoa da aztertutako bi kasuetan.



OPERADORE EKONOMIKOEN KOSTUEN EGITUREN BATEZBESTEKOA

	BATEZBESTEKOA % (1)	BATEZBESTEKOA % (2)
1 Langileen kostuak	56,73	54,84
2 Erregaien kostuak	10,40	10,15
3 Ibilgailuak eta edukiontziak mantentzeko lanak	9,24	8,92
4 Bestelako kostu materialak		
Ibilgailuen aseguruak eta zergak	0,66	0,63
Langileen jantziak	0,75	0,72
Komunikazio- eta kontrol-sistemak eta informatika-ekipoak	0,52	0,50
Bestelako kostuak	1,40	1,36
5 Egiturako gastu orokorrak (GO)	5,55	6,44
6 Mozkin industriala (MI)	1,89	3,89
7 Amortizazioak	11,35	11,04
8 Finantza-gastuak	1,53	1,52
GUZTIRA	100,00	100,00
(1) Enpresen kostuen batez besteko aritmetikoa, 0 baliodun kostuen osagarriak barne		
(2) Enpresen kostuen batez besteko aritmetikoa. MI eta GO kontzeptuetan zenbatetsitako ehunekoa gainerako osagarrietan banatuta dago balio horiek sartu ez diren kasuetan		

IV.5. Kostuen egitura

Kostuen egituraren proposamena zuzena da, hauek denak kontuan hartuta: arrazoizko banakapena egin da egiturari, analisi ekonomikoa ere bai, hondakinak biltzeko sektorean ongi ezarritako eragileen kostuen egituren batezbestekoak aipatu dira eta Debabarrena eskualdeko mankomunitateak aurretiaz badu esperientzia antzeko kontratuak kudeatzen.

Egiaztatu da langileen gastuen kostuak daukala pisu erlatiborik handiena multzo osoan, zehazki, % 56,74koa. Erregaien kostuen eta ibilgailuen eta edukiontzien mantentze-lanen kontzeptuak dira hurrengo ehuneko handienak dituztenak, hurrenez hurren % 10,39 eta % 9,24. Mankomunitateak ezarritako maileguaren amortizazioetarako enpresen batez besteko kostua % 11,10ekoa da, eta inbertsio-kostu handia da. Finantzetaren % 100 Debabarrena eskualdeko mankomunitatearen kontura da, behin-behineko AKPAren 6. apartatuan jasotakoari jarraikiz.



MANKOMUNITATEAK PROPOSATUTAKO KOSTUEN EGITURAREN TAULA

KONTRATATUKO DEN JARDUERA	%
1 Langileen kostuak	56,74
2 Erregaien kostuak	10,39
3 Ibilgailuak eta edukiontziak mantentzeko lanak	9,24
4 Bestelako kostu materialak	
Ibilgailuen aseguruak eta zergak	0,66
Langileen jantziak	0,75
Komunikazio- eta kontrol-sistemak eta informatika- ekipoak	0,52
Bestelako kostuak	0,90
5 Amortizazioak	11,10
6 Egiturako gastu orokorrak (GO)	4,55
7 Mozkin industriala (MI)	3,12
8 Finantza-gastuak	2,03
GUZTIRA	100,00

1. OHARRA

Mantentze-lanen kontzeptua bereizi liteke, hura osatzen duten bi kontzeptu moten arabera (ibilgailuak/edukiontziak), kostuen egituraren barruan dagozkien pisuekin. Hori baino lehen, edukiontziak mantentzeak 55/2017 Errege Dekretuan ezarritako baldintzak betetzen dituen aztertu beharko litzateke, berrikusgarritzat jotzeko.

Bereizketa hori bai hartu da kontuan kontratuaren balio zenbatetsia kalkulatzeko azterlan ekonomikoan.

Ez da bereizketarik egiten nahitaezkoak diren eta ez diren aseguruaren artean aseguruaren kontzeptuaren barruan.

Kostuen kontzeptuak bereiz daitezke, hala nola publizitatearena, birziklatzearen inguruko kontzientziazio-kanpainena eta jardueran eragina duten antzeko kontzeptuena.

IV.6. Berrikustekoak diren eta ez diren kostuak

Otsailaren 3ko 55/2017 Errege Dekretuan xedatutakoaren arabera, berrikustekoak diren kostuetan, formulan sartu beharreko kostuen osagai bakoitzak prezio indibiduala edo indize espezifikoa izango du, eta modu horretan, kostuaren bilakaera adierazita geratuko da. Kontratuaren behin-behineko PTaren 3.4 apartatuan prezioen berrikuspenari lotutako kostu gisa definitzen dira honako hauek betetzen dituztenak:

- Jarduerari lotutako zuzeneko loturaren araua
- Zerbitzua egiteko nahitaezkotasunaren araua
- Desbideratze handiak izan ditzaketen kostuak dira, eta ziurrenik, desbideratzeok denboran iraungo dute
- Kostu handiak izatea (> jardueraren kostuen egituraren % 1)
- Kontratatik kontrolatu ezin dituen kostuak dira

Ez dira berrikusiko amortizazioekin lotutako kostuak, finantza-kostuak, gastu orokorrak edo egitura-gastuak, ez eta mozkin industrialak ere.

Azkenik, honako hauek dira berrikusteko kostuak:

- A Langileen kostuak. (% 56,74)
- B Erregaien hornidura-kostuak. (% 10,39)
- C Ibilgailuen eta edukiontzien mantentze-lanen kostuak. (% 9,24)

Kasu bakoitzeko kostuen bilakaeraren eta intzidentzia-parametroen grafikoak eta analisia atxiki dira. Aurreko hamarkadan erregaien prezioaren bilakaera oso aldakorra izan zen. Aurrekoetz gain, hitzarmen kolektiboen arabera soldata-kostuen zerrendak eta prezioen berrikuspen-formulan sartzeko hautatutako kostuak berrikusgarriak direla justifikatzen duten gainerako faktoreak ere sartu dira.

IV.7. Prezioak berrikustea

Prezioak berrikusteko formula

Mankomunitateak proposatutako formula honako hau da:

$$P_t = K_t * P_{t-1}$$

Bertan:

- P_t = t urtean berrikusitako kontratuaren urteko zenbatekoa da.
- K_t = t urteari aplikatutako berrikuspen-koefizientea da.
- P_{t-1} = Kontratuak t-1 urtean izandako prezioa da.

K_t berrikuspen-koefizientea lortzeko mankomunitateak proposatu duen formula polinomikoa honako hau da:

$$K_t = A \cdot (Ald.S_t) + B \cdot (Ald.M_t) + C \cdot (Ald.L_t) + D$$

Bertan:

- A: Eskulanaren kostuaren pisua, bateko hainbestean adierazia. (0,5674)
- (Ald.S_t) eskulanaren kostuaren aldakuntza da, $(1+S_t / t-1)$ faktorearen baliokidea da, eta horko $S_t / t-1$ berrikuspen urteko eta aurreko urteko soldata-aldakuntzaren indizea da.
- B: Mantentze-/konponketa-zerbitzuaren kostuaren pisua, bateko hainbestean adierazia. (0,0924)
- (Ald.M_t) mantentze-lanen eta konponketen kostuaren aldakuntza da, $(1+M_t / t-1)$ faktorearen baliokidea da, eta horko $M_t / t-1$ mantentze-lanen gasturako indize nazionalaren estatu-mailako aldakuntza da, Estatistikako Institutu Nazionalak (INE) argitaratu du, eta prezioak berrikusten diren unearen eta aurreko urtearen artekoa da.
- C: Erregai/lubrifikatzaileen kostuaren pisua, bateko hainbestean adierazia. (0,1039)
- (Ald.L_t) erregaien eta lubrifikatzaileen kostuaren aldakuntza da, $(1+L_t / t-1)$ faktorearen baliokidea da, eta horko $L_t / t-1$ erregaietzako indize nazionalaren estatu-mailako aldakuntza da, eta INE Espainiako estatistika-institutuak argitaratu du, prezioak berrikusten diren unearen eta aurreko urtearen artean.
- D: Berrikusi ezin diren kostuek (hala nola amortizazioak, finantzaketak, etab.) ez dute aldakuntza indizerik, kostua ez baita berrikusteko modukoa. (0,2363)

2. OHARRA SPKLren 103. artikulua 4. apartatuaren arabera:

*«Administrazio-klausula partikularren agiriak, halako kasuetan, berrikusteko aplikatu beharreko formula zehaztu beharko du; aldezina izango da kontratua indarrean dagoen bitartean, eta hark zehaztuko du noiz berrikusiko diren prezioak, **kontratua egiteko eguna kontuan hartuta**, baldin eta kontratua eskaintzak aurkezteko epea bukatu eta hiru hilabeteko epean egiten bada; kontratua geroago egiten bada, hiru hilabeteko epea bukatzen den eguna kontuan hartuta zehaztuko da noiz berrikusi prezioak».*

Beraz, egiaztatu behar da aldakuntza berrikuspen-dataren eta berrikuspenaren jatorrizko dataren arteko aldiari dagokiola, hots, kontratua formalizatzen den datari.

K_t koefizientea kalkulatzeko proposatutako formula honako hau da:

$$P_t = K_t \cdot P_o$$

Bertan:

- $P_t = t$ urtean berrikusitako kontratuaren urteko zenbatekoa da.
- $K_t = t$ urteari aplikatutako berrikuspen-koefizientea da.
- $P_o =$ Kontratua adjudikatzen den hilabete eta urteko kontratuaren aurrekontua da, SPKLren 103. artikuluko 4. apartatuaren arabera data-baldintzekin:

Prezioak berrikusteko indizeak

Honako hau da koefizientea zehazteko formula:

$$K_t = 0,5674 \cdot (1 + S_{t/t-1}) + 0,0924 \cdot (1 + M_{t/t-1}) + 0,1039 \cdot (1 + L_{t/t-1}) + 0,2363$$

Egiaztatuta dago formularen balioak honako hauek direla $A + B + C + D = 1$

Honakoak egiaztatu dira behin-behineko baldintza-agirietan

- Eskuragarriak diren datu irekien jatorria. Urteko berrikuspenetan (gorantz edo beherantz izan daitezke) indizeetarako kontsultatu behar dira, eta kanpoan uzten dituzte zerga-aldakuntzen ondorioak (indize harmonizatuak eta zerga iraunkorrei atxikitakoak proposatu dira).
- Berrikuspen-epeneen erreferentzia sartu da SPKLren 103. artikuluko 4. apartatua oinarri hartuta.
- 55/2017 EDren 5. artikulua aipatzen da, non eskulanaren kostuak mugatzen diren.

Egiaztatu da behin-behineko AKPAren prezioen berrikuspen-formula berberak sartu direla eta behin-behineko PTAREN III. eranskineko erreferentzia jasotzen duela. Bertan indizeak zehazteko modua dago jasota $S_{t/t-1}$, $M_{t/t-1}$ eta $L_{t/t-1}$; non:

- A: Eskulana ($S_{t/t-1}$)

Indize gisa «itundutako batez besteko soldata-aldakuntza» proposatu da ehunekoetan, prezioak berrikusi ziren unearen eta bere aurreko urtearen artean, eta Lan eta Gizarte Ekonomiako Ministerioan argitaratu zen.

Helbidea: <https://expinterweb.mites.gob.es/series/>

Kokapena: *Serie nagusiak >Estatistikak > Lan-baldintzak eta harremanak> Laneko hitzarmen kolektiboak>*

Kontsulta-datuak: *Analisiaren aldagaia: Itundutako batez besteko soldata-aldakuntza> Saillapenaren aldagaia: Itundutako batez besteko lanaldiaren jarduera-eremua eta -bereizketa>*



Sailkapenaren balio aldagarria: Enpresaren goiko eremua > CNAE-2009 banaketa: 38.: Hondakinen bilketa, tratamendua eta deuseztatzea; balorizatzea > Maiztasuna Urtean behin

- B: Mantentze-lanak eta konponketak (M t / t-1)

Indize gisa proposatzen da INE Espainiako estatistika-institutuak argitaratutako «0723 Ibilgailu pertsonalak mantentzea eta konpontzea» motako indize nazionalaren estatu-mailako urteko aldakuntza, prezioak berrikusteko unearen eta aurreko urtearen artean.

Helbidea: <https://www.ine.es/jaxiT3/Tabla.htm?t=23714>

Kokapena: *INEbase > Bizitza-maila eta -baldintzak (KPI) > Kontsumo- eta etxebizitza-prezioen indizeak > Kontsumo-prezioen indize harmonizatua > Kontsumo-prezioen indize harmonizatuak. Oinarria 2015*

Kontsulta-datuak: *Mota: 0723 Ibilgailu pertsonalen mantentze-lanak eta konponketa > Datu mota: Urteko aldakuntza > Aldia: Berrikuspena egin beharreko hilabetearen aurreko hilabetea.*

- C: Erregaiak eta lubrifikatzaileak (L t / t-1)

Indize gisa proposatzen da INE Espainiako estatistika-institutuak argitaratutako «0723 Ibilgailu pertsonalak mantentzea eta konpontzea» motako indize nazionalaren estatu-mailako urteko aldakuntza, prezioak berrikusteko unearen eta aurreko urtearen artean.

Helbidea: <https://www.ine.es/jaxiT3/Tabla.htm?t=23714>

Kokapena: *INEbase > Bizitza-maila eta -baldintzak (KPI) > Kontsumo- eta etxebizitza-prezioen indizeak > Kontsumo-prezioen indize harmonizatua > Kontsumo-prezioen indize harmonizatuak. Oinarria 2015*

Kontsulta-datuak: *Mota: 0722 Erregaiak eta lubrifikatzaileak ibilgailu pertsonaletarako > Datu mota: Urteko aldakuntza > Aldia: Berrikuspena egin beharreko hilabetearen aurreko hilabetea.*

3. OHARRA

2. OHARRA berretsi da berrikuspen-indizeen erreferentzia-eppei dagokienez, segidako urteen aldakuntza gisa proposatu direlako, eta ez kontratua egin zen egunarekiko.

Beraz, berrikuspen-indizeak berrikusi eta identifikatzeko honako formula hau gomendatzen da:

$$K_t = 0,5674 * (S_t / S_o) + 0,0924 * (M_t / M_o) + 0,1039 * (E_t / E_o) + 0,2363$$

Eta, hor:

- S_t : estatu-mailan hondakinen bilketa-sektorean itundutako batez besteko soldata-aldakuntza, kontratuaren prezioa berrikusi den urtean.

- S_o : estatu-mailan hondakinen bilketa-sektorean itundutako batez besteko soldata-aldakuntza, kontratua egin den urtean.

Helbidea: <https://expinterweb.mites.gob.es/series/>

Kokapena: *Serie nagusiak >Estatistikak > Lan-baldintzak eta harremanak> Laneko hitzarmen kolektiboak>*

Kontsulta-datuak: *Analisiaren aldagaia: Itundutako batez besteko soldata-aldakuntza> Saillkapenaren aldagaia: Jarduera-eremua eta -bereizketa> Saillkapenaren balio aldagarria: Enpresaren goiko eremua > CNAE-2009 banaketa: 38.: Hondakinen bilketa, tratamendua eta deuseztatzea; balorizatzea > Maiztasuna Urtean behin*

- M_t : «Mantentze-lanen eta konponketen zerbitzuak» motaren indizearen estatu-mailako aldakuntza, prezioa berrikusteko urteari dagokion hilabeterako

- M_o : «Mantentze-lanen eta konponketen zerbitzuak» motaren indizearen estatu-mailako aldakuntza, kontratua egin den urteari dagokion hilabeterako.

Helbidea: <https://www.ine.es/jaxiT3/Tabla.htm?t=23714>

Kokapena: *INEbase >Bizitza-maila eta -baldintzak (KPI) > Kontsumo- eta etxebizitza-prezioen indizeak> Kontsumo-prezioen indize harmonizatua> Kontsumo-prezioen indize harmonizatuak. Oinarria 2015*

Kontsulta-datuak: *Mota: 0723 Ibilgailu pertsonalen mantentze-lanak eta konponketa > Datu mota: Urteko aldakuntza > Aldia: Berrikuspena egin beharreko hilabetearen aurreko hilabetea.*

- E_t : «Erregaiak eta lubrifikatzaileak» motaren indizearen estatu-mailako aldakuntza, prezioa berrikusteko urtean dagokion hilabeterako

- E_o : «Mantentze-lanen eta konponketen zerbitzuak» motaren indizearen estatu-mailako aldakuntza, kontratua egin den urtean dagokion hilabeterako.

Helbidea: <https://www.ine.es/jaxiT3/Tabla.htm?t=23714>



Kokapena: *INEbase > Bizitza-maila eta -baldintzak (KPI) > Kontsumo- eta etxebizitza-prezioen indizeak > Kontsumo-prezioen indize harmonizatua > Kontsumo-prezioen indize harmonizatuak. Oinarria 2015*

Kontsulta-datuak: *Mota: 0722 Erregaiak eta lubrifikatzailak ibilgailu pertsonaletarako > Datu mota: Urteko aldakuntza > Aldia: Berrikuspena egin beharreko hilabetearen aurreko hilabetea.*

4. OHARRA

Prezioak berrikusteko formulak ez du efizientziaren arabera berrikuspena modulatzeko duen faktorerik barnean hartzen (55/2017 Errege Dekretuaren 7.8 artikulua aipatzen duena).

Hala ere, behin-behineko baldintza-agirietan aipatzen da zerbitzuaren lehiakortasuna hobetzea espero dela paper eta kartoizko hondakinak saltzeko aukera badago, hondakin horien bilketaren eraginkortasuna sustatzen baitu.

IV.7. Inbertsioaren itzultze-denbora

Inbertsioak

Memoria ekonomikoan azalduta dagoen moduan, hasierako inbertsio biribildua 901.500,00 eurokoa izatea proposatu da.

Kontratua bukatzean inbertsio guztiak amortizatuta geratuko dira.

Deskontu-tasaren balioa

Inbertsioaren berreskuratze-denboraren justifikazio-taulan mankomunitateak aplikatutako deskontu-tasa dago jasota, eta % **4,698koa** da. Zenbateko hori lortzeko, oinarrizko 200 puntu gehitzen zaizkio estatuaren 10 urterako zorrak bigarren mailako merkatuan azken 6 hilabeteetan batez beste izandako errendimenduari; datu horiek Espainiako Bankuak argitaratzen ditu. Kasu honetan, 2022ko uztailetik abendura (biak barne) arteko batezbestekoa aplikatzen da, eta datua hemendik atera da:

ITURRIA: *Espainiako Bankua > Hasiera > Estatistikak > Estatistikak argitalpenen arabera > Estatistika Aldizkaria > Finantza-merkatuak > 22. Balioen bigarren mailako merkatuak > Estatuaren zorra. Saldoak edukizaitileen arabera > 22.7. Bereizi gabeko Estatuaren bonuak eta obligazioak Operazio sinpleak eskura. Merkatuaren multzoa, negoziatuen zenbatekoak eta interes-tasak.*



22. MERCADOS SECUNDARIOS DE VALORES
A) Deuda pública

22.7 Bonos y obligaciones del Estado no segregados
Operaciones simples al contado. Conjunto del mercado
Importes negociados y tipos de interés

Millones de euros y porcentajes

	Importes negociados									Tipos de interés				
	Total	Hasta un año	De uno a dos años	De dos a tres años	De tres a cuatro años	De cuatro a seis años	De seis a diez años	De diez a veinte años	Más de veinte años	A tres años	A cinco años	A diez años	A quince años	A treinta años
	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12	13	14
19	3 205 979	81 141	123 769	296 334	236 307	325 244	493 660	496 253	121 882	-0,27	-0,00	0,68	1,05	1,72
20	2 696 745	78 238	124 630	173 664	225 311	378 154	558 945	486 164	288 636	-0,29	-0,12	0,38	0,71	1,19
21	1 720 971	69 334	77 499	132 727	163 579	287 848	546 340	299 517	144 127	-0,44	-0,25	0,35	0,61	1,24
22	1 628 076	64 630	86 833	136 219	122 030	309 624	451 083	302 588	155 070	1,24	1,58	2,20	2,52	2,79
21 Jun	151 607	5 656	6 251	14 514	11 932	21 035	55 868	27 039	9 311	-0,42	-0,22	0,45	-	1,42
Jul	138 167	7 438	8 125	12 113	12 567	21 869	42 648	23 464	9 942	-0,46	-0,29	0,33	-	1,27
Ago	119 128	2 379	5 029	9 702	10 382	24 551	36 862	21 858	8 365	-0,52	-0,37	0,22	0,55	1,14
Sep	165 064	4 248	7 554	12 851	13 781	30 540	37 891	35 234	22 965	-0,51	-0,32	0,33	0,66	1,25
Oct	145 160	3 699	5 254	12 068	10 576	28 108	41 859	30 176	13 420	-0,44	-0,20	0,47	0,77	1,33
Nov	141 352	5 182	7 597	14 168	8 966	29 004	46 530	16 555	13 350	-0,42	-0,14	0,48	0,75	1,26
Dic	114 053	3 205	5 562	13 503	7 456	22 335	40 067	14 050	7 875	-0,46	-0,18	0,41	0,69	1,19
22 Ene	166 644	4 705	5 775	15 699	9 003	34 200	55 092	34 360	7 810	-0,35	-0,00	0,66	0,92	1,43
Feb	164 030	3 912	6 018	15 654	14 955	29 601	40 177	29 365	24 346	0,11	0,51	1,11	1,43	1,77
Mar	163 918	4 762	7 144	17 233	14 758	27 595	40 572	36 676	15 177	0,20	0,56	1,23	1,54	1,86
Abr	117 742	4 280	6 584	9 570	10 365	21 817	29 319	26 927	8 879	0,67	1,07	1,69	1,98	2,21
May	131 298	4 902	4 416	11 893	12 425	30 299	39 678	15 009	12 675	0,98	1,37	2,05	2,39	2,68
Jun	137 467	4 605	9 357	8 115	8 092	25 161	40 661	27 726	13 748	1,58	1,99	2,69	2,98	3,27
Jul	116 311	4 580	7 285	9 690	7 288	23 094	30 903	23 632	9 839	1,15	1,56	2,33	2,70	3,04
Ago	114 365	7 882	6 334	7 967	9 011	22 677	26 028	25 134	9 333	1,15	1,48	2,18	2,54	2,85
Sep	147 435	7 498	8 607	11 806	10 799	26 967	31 379	29 184	21 195	2,04	2,35	2,95	3,25	3,42
Oct	139 822	5 838	8 057	11 239	10 487	29 331	36 753	25 707	12 411	2,39	2,75	3,31	3,66	3,83
Nov	117 630	5 182	8 361	10 040	9 114	19 262	39 843	16 406	9 422	2,40	2,63	3,11	3,42	3,55
Dic	111 416	6 483	8 894	7 312	5 733	19 619	40 678	12 462	10 234	2,53	2,70	3,11	3,41	3,46
23 Ene	137 310	9 790	6 686	11 389	8 422	24 582	47 469	18 366	10 606	2,77	2,84	3,22	3,55	3,66

5. OHARRA

Gure gomendioa da inbertsioen berreskuratze-epa kalkulatzeko deskontu-tasaren «b» balioarekin, behin betiko baldintza-agiriak argitaratu aurreko azken sei hilekoan eguneratuta, eta zor bereziaren zenbateko nagusiei eta kupoiei buruzko 22.8 taula erabiltzea, bereizi gabeko Estatuaren bonuei eta obligazioei buruzko 22.7 taularen ordean.

Hau da gomendatutako datuaren jatorria:

ITURRIA: *Espainiako Bankua > Hasiara > Estatistikak > Estatistikak argitalpenen arabera > Estatistika Aldizkaria > Finantza-merkatuak > 22. Balioen bigarren mailako merkatuak > Estatuaren zorra. Saldoak edukitzailen arabera > 22.8. Estatuaren zor bereziaren zenbateko nagusiak eta kupoiak. Operazio sinpleak eskura. Merkatuaren multzoa, negoziatuen zenbatekoak eta interes-tasak.*

Txosten honetako itzultze-denboraren taula berrikusita dago 2022ko uztailetik 2023ko urtarrilera arteko hilabetei (biak barne) dagokien deskontu-tasaren balioarekin. 10 urterako batez besteko balioa % 2,213 da. Formularen aplikatu beharreko deskontu-tasaren balioa honako hau da: **b = % 4,213**

22. MERCADOS SECUNDARIOS DE VALORES
A) Deuda pública

22.8 Principales y cupones de deuda segregada del Estado
Operaciones simples al contado. Conjunto del mercado
Importes negociados y tipos de interés

Millones de euros y porcentajes

	Importes negociados									Tipos de interés				
	Total	Hasta un año	De uno a dos años	De dos a tres años	De tres a cuatro años	De cuatro a seis años	De seis a diez años	De diez a veinte años	De veinte a treinta años	A tres años	A cinco años	A diez años	A quince años	A treinta años
	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12	13	14
19	16 620	1 322	1 838	1 434	369	2 793	2 664	1 601	1 263	-0,21	0,04	0,63	-	2,19
20	7 258	1 005	1 041	283	288	1 296	586	838	1 035	-0,28	-0,09	0,39	0,74	1,23
21	5 320	1 077	344	320	432	445	462	725	1 514	-0,41	-0,21	0,41	0,81	1,40
22	9 342	478	490	947	757	1 057	634	3 134	1 527	1,26	1,58	2,26	2,52	2,82
21 Jun	543	78	13	27	56	48	31	228	62	-0,40	-0,16	0,54	0,96	1,61
Jul	244	92	5	10	9	7	30	53	38	-0,43	-0,25	0,43	0,87	1,43
Ago	64	3	2	3	21	14	3	18	0	-0,46	-0,35	0,25	0,67	-
Sep	173	8	5	12	14	9	2	19	103	-0,44	-0,27	-	-	-
Oct	387	21	12	49	62	50	37	79	77	-0,39	-0,15	0,53	-	-
Nov	1 082	14	17	75	62	133	109	85	588	-0,37	-0,15	0,56	0,93	-
Dic	529	138	50	66	22	33	17	101	102	-0,43	-0,21	0,44	0,76	1,28
22 Ene	771	81	23	26	11	43	18	238	30	-0,27	0,02	0,69	1,04	1,55
Feb	722	4	9	51	149	44	91	179	180	0,20	0,55	1,26	1,57	2,12
Mar	1 628	15	65	167	198	422	116	270	375	0,28	0,55	1,30	1,65	2,19
Abr	350	58	78	17	4	18	5	170	...	0,75	0,99	-	-	-
May	615	138	67	16	12	26	53	265	39	0,99	1,32	1,98	2,31	-
Jun	839	37	17	23	192	100	59	119	290	1,64	2,17	2,77	3,11	3,27
Jul	528	47	3	5	9	6	3	454	1	1,13	1,52	2,39	2,66	-
Ago	133	11	0	5	1	3	2	111	...	0,96	1,25	-	2,26	-
Sep	568	13	58	260	81	29	102	2	23	2,03	2,42	2,95	3,63	3,33
Oct	899	36	48	30	23	195	97	240	230	2,46	2,74	3,27	3,78	3,67
Nov	1 459	5	35	333	54	95	73	651	213	2,36	2,64	2,87	-	3,58
Dic	830	32	86	14	23	78	15	434	148	2,60	2,76	3,07	3,19	-
23 Ene	1 930	26	177	116	3	132	499	976	...	2,77	2,83	3,33	3,72	-

6. OHARRA

Inbertsioaren itzulera-taula eguneratu beharko litzateke egungo zenbatespen-data eta obra hasteko aurreikusitako egun erreala kontuan hartuta, hau da, 2023ko abenduak 1. Egiaztatzeko itzulera-denborak 8 urtekoa izaten jarraitzen duela, itzulera-taula hau egin da honako ohar hauekin:

Kutxako fluxua

Itzultze-denboraren analisi-taula proposatu da zenbateko aldakorrek, bai diru-sarreretan bai gastuetan, kutxako fluxua kalkulatzeko, eta honako ohar hauekin:

- «Ordaintzen» apartatuan honako gastu aldakorrek kontuan hartzen dira, eta memoria ekonomikoan kasu bakoitzean gehikuntza lineal bat esleitzen da, eta gehikuntza hori zuzen justifikatuta dago azken urteetako estatistika-datuen arabera:
 - Langileen gastuak % 2,3ko gehikuntza linealarekin, eta 2017-2022 urteen arteko «Gipuzkoako errepide-garbiketako probintzia-hitzarmenaren» datuen eta bestelako oharren arabera.
 - Ustiapen-kostuak, % 1,5eko gehikuntza linealarekin.

- Gastu orokorrak, % 0,5eko gehikuntza linealarekin.
- Finantza-gastuak, 8 urteko epean gastuaren ustezko gutxitzearekin. Analisi ekonomikoa ez da azaltzen, eta taularekin ere ez da ondorioztatu, gutxitu beharreko ehunekoaren trazabilitatea.
- «Kobrantzak» apartatuan modu finkoan zenbatzen dira urteko 926.554,08 euroko (BEZik gabe) aurrekontua eta urteko 97.000,00 euroan (BEZik gabe) kalkulaturako paper eta kartoiaren gaikako salmentengatiko diru-sarrerak.
- Kontratuaren iraupen-epea bat dator ibilgailuen bizitza baliagarriarekin, eta gainera, ez dago bigarren eskuko merkaturik erabilitako ibilgailu eta ekipo gehienentzat. Hondarbalioa 0 da.
- «Kobrantzak» apartatuan, kontratuaren 3. urtetik aurrera prezioen berrikuspena aplikatzearen ondoriozko zenbatetsitako diru-sarreraren gehikuntza ere sartu da (kontratuaren % 20 baino gehiago bete dela pentsatuta). Formula hori osagai bakoitzean kostuen igoera linealaren zenbatespen gutxi gorabeherako batekin aplikatzen da (langileak, erregaiak eta mantentzea, irizpide horrekin), eta azterlan ekonomikoa zuzen adierazten da aplikatzekoak diren indizeetarako datuen iturria, baliozkoak izan daitezkeenak. Kasu honetan:
 - Langileak % 2,072ko gehikuntza linealarekin, 2017-2022 urteetako urteko aldakuntzarako batezbestekoaren arabera, estatu-mailan eta mota honentzat: «38. Jarduera. Hondakinak biltzea, tratatzea eta deuseztatzea; balorizatzea».
 - Mantentze-lanak % 2,883ko gehikuntza linealarekin, 2017-2022 urteetako urteko aldakuntzarako batezbestekoaren arabera, estatu-mailan eta mota honentzat: «Ibilgailu pertsonaletarako ordezkotako pieza eta osagarriak».
 - Erregaiak % 3,833ko gehikuntza linealarekin, 2017-2022 urteetako urteko aldakuntzarako batezbestekoaren arabera, estatu-mailan eta mota honentzat: «Ibilgailu pertsonaletarako erregaiak eta lubrifikatzaileak».



7. OHARRA

55/2017 Errege Dekretuaren 10. artikularen arabera, inbertsioaren berreskuratze-aldiaren formularen, kutxako fluxuan kontuan hartu behar dira ustiapen-jarduerak eta inbertsio-jarduerak, honako ohar hauekin:

«Ustiapen-jarduerekin sortutako kutxako fluxuaren barnean egongo dira, besteak beste, kanon eta zergen ondoriozko kobrantzak eta ordainketak, eta kanpoan geratuko dira kontratistaren mozkina zergapetzen dutenak.

Proiekzioak egiteko unean horien besterentze benetakoa aurreikusita ez dagoen arren, inbertsio-jarduerengatik sortutako kobrantza gisa sartuko da aktiboen hondar-balioa, hau da, kontratua edo ondare-elementuaren bizitza baliagarria bukatzean berreskuratu litekeen zenbatekoa, baldin eta aurretik amaitzen bada, bai merkatuan saldu delako, bai eta bestelako arrazoi batzuegatik.

Hondar-balioa zehazteko, ondare-elementuen ezaugarriak analizatuko dira, besteak beste, bizitza baliagarria, bestelako erabilerak, mugikortasuna eta zatigarritasuna.

FCt-k ez ditu barnean hartuko finantzaketa-jarduerengatik sortutako kobrantzak eta ordainketak.

Kutxako fluxuen zenbatespena egiteko ez dira kontuan hartuko FCt osatzen duten diru-balioen eguneraketak.

Hori dela-eta, inbertsioaren berreskuratze-aldiaren taulan ezabatu egin behar da «ordainketak» apartatuaren finantza-gastuen kontzeptua, eta Debabarrena eskualdeko mankomunitateak berriz ere kalkulatu beharko luke.

8. OHARRA

Inbertsioaren berreskuratze-aldiaren taulako «Kobrantzak» apartatuan, kontratua egin eta 3. urtetik aurrera prezioak berrikusi ondorengo emaitzaren zenbatespen bat ezarrita dago. Zenbatespen hori 2017 eta 2022 urteen arteko aurreko aldiko batezbestekoetan oinarrituta dago, eta nahiko adierazgarriak dira, nahiz eta COVID-19aren pandemia-urteetan ezohiko eraginak izan.

Hala eta guztiz ere, zuzenagoa da prezioen berrikuspenean berrikuspen-formula oso baten gainerako faktoreak sartzea. Bertan, berrikusi ezin diren kostuak irudikatzen dituen indizerik gabeko kontzeptu finko bat egon behar da.

Inbertsioaren itzultze-denbora

Azterketa ekonomikoaren arabera, 8 urtekoa izango da inbertsioaren itzultze-denbora. SPKLren 29.4. eta 103. artikuluen arabera, lizitazioarekin zuzenean lotutako inbertsioak berreskuratzeko aldia 5 urtetik gorakoa izatearen eta lizitazioaren zenbatekoaren ondorioz, **prezioak aldizka eta aurrez zehaztuta berrikusi behar dira**. Kontratuko agiriek ere hori egin behar dela zehazten dute.

9. OHARRA

Txosten honetan inbertsioaren itzultze-denboraren taula berrikusi da IV.7 apartatuan adierazitako oharrekin eta honako ondorio hauek atera dira:

A analisia

«Ordainketetan» finantza-gastuen kontzeptua ezabatzea eta deskontu-tasaren balioa $b = \% 4,213$ ra eguneratzea kontuan hartuta, inbertsioaren berreskuratze-aldia ez da aldatzen, eta 8 urtean mantentzen da.

B analisia

«Ordainketetan» finantza-gastuen kontzeptua ezabatzea eta deskontu-tasaren balioa $b = \% 4,213$ ra eguneratzea kontuan hartuta, eta inbertsio-aldiaren formula osoa aplikatuz gero:

$$K_t = 0,5674 * 0,02072 + 0,0924 * 0,02883 + 0,1039 * 0,03833 + 0,2363 * 0,01$$

inbertsioaren berreskuratze-aldia 7 urtera aldatzen da.

Inbertsioaren itzulera-taula eguneratu beharko litzateke egungo zenbatespen-data eta obra hasteko aurreikusitako egun erreala kontuan hartuta, hau da, 2023ko abenduak 1. Itzultze-denbora 8 urteko epean mantentzen dela egiaztatzeko.

V.-ONDORIOAK

Horregatik guztiagatik, Debabarrena eskualdeko mankomunitatean hiri-hondakin solidoak gaika biltzeko zerbitzu-kontratuaren kostuen egiturari eta prezioak berrikusteko formulari buruzko TXOSTENA bidali da, haren edukia txosten honetan jasotako oharretara egokitzeko.



A TAULA INBERTSIOAREN BERRESKURATZE-ALDIA DESKONTU-TASA EGUNERATUTA, FINANTZA-GASTUAK EZABATUTA ETA PREZIOAK BERRIKUSTEKO FORMULA, BERRIKUSTEKOAK EZ DIREN GASTUAK KONTUAN HARTU GABE

	AÑO	2023	2024	2025	2026	2027	2028	2029	2030	2031
		0	1	2	3	4	5	6	7	8
PAGOS	FACTORES LINEALES									
GASTO PERSONAL	1,02300	580.713,41	594.069,82	607.733,42	621.711,29	636.010,65	650.638,90	665.603,59	680.912,48	
COSTES EXPLOTACION (MANTENIMIENTO+COMBUSTIBLES+OTROS)	1,01500	229.839,07	233.286,66	236.785,96	240.337,75	243.942,81	247.601,95	251.315,98	255.085,72	
GASTOS GENERALES	1,00500	46.520,53	46.753,13	46.986,90	47.221,83	47.457,94	47.695,23	47.933,71	48.173,38	
GASTOS FINANCIEROS	0,00000	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	2.199,49
SUMA PAGOS ANUALES		857.073,01	874.109,61	891.506,28	909.270,87	927.411,41	945.936,08	964.853,28	986.371,06	
INVERSIONES		901.500,00								
COBROS CÁNON ANUAL		926.554,08	926.554,08	926.554,08	926.554,08	926.554,08	926.554,08	926.554,08	926.554,08	926.554,08
COBROS VENTA SELECTIVA		97.000,00	97.000,00	97.000,00	97.000,00	97.000,00	97.000,00	97.000,00	97.000,00	97.000,00
COBROS REVISIÓN DE PRECIOS	FACTORES LINEALES									
A PERSONAL	0,011755			10.892,10	21.784,20	32.676,30	43.568,40	54.460,50	65.352,59	
B COMBUSTIBLES	0,002663			3.680,29	7.360,57	11.040,86	14.721,14	18.401,43	22.081,71	
C MANTENIMIENTO	0,003972			2.467,57	4.935,14	7.402,72	9.870,29	12.337,86	14.805,43	
D OTROS no revisables				0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
SUMA COBROS ANUALES		1.023.554,08	1.023.554,08	1.040.594,04	1.057.633,99	1.074.673,96	1.091.713,91	1.108.753,87	1.125.793,81	
TASA DE DESCUENTO MANCOMUNIDAD	0,042130									
FLUJO DE CAJA		166.481,07	149.444,47	149.087,76	148.363,12	147.262,55	145.777,83	143.900,59	139.422,75	
	1,042130	1,0469800000	1,0961671204	1,1476650517	1,2015823658	1,2580326949	1,3171350709	1,3790140766	1,4438001679	
FLUJO DE CAJA DESCONTANDO AL ORIGEN		159.010,75	136.333,66	129.905,29	123.473,12	117.057,81	110.677,96	104.350,34	96.566,51	
NECESIDAD DE INVERSIÓN		-901.500,00	-742.489,25	-606.155,60	-476.250,31	-352.777,19	-235.719,38	-125.041,42	-20.691,08	75.875,44

B TAULA INBERTSIOAREN BERRESKURATZE-ALDIA DESKONTU-TASA EGUNERATUTA, FINANTZA-GASTUAK EZABATUTA ETA PREZIOAK BERRIKUSTEKO FORMULA OSOA

	AÑO	2023	2024	2025	2026	2027	2028	2029	2030	2031
		0	1	2	3	4	5	6	7	8
PAGOS	FACTORES LINEALES									
GASTO PERSONAL	1,02300	580.713,41	594.069,82	607.733,42	621.711,29	636.010,65	650.638,90	665.603,59	680.912,48	
COSTES EXPLOTACION (MANTENIMIENTO+COMBUSTIBLES+OTROS)	1,01500	229.839,07	233.286,66	236.785,96	240.337,75	243.942,81	247.601,95	251.315,98	255.085,72	
GASTOS GENERALES	1,00500	46.520,53	46.753,13	46.986,90	47.221,83	47.457,94	47.695,23	47.933,71	48.173,38	
GASTOS FINANCIEROS	0,00000	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	2.199,49
SUMA PAGOS ANUALES		857.073,01	874.109,61	891.506,28	909.270,87	927.411,41	945.936,08	964.853,28	986.371,06	
INVERSIONES		901.500,00								
COBROS CÁNON ANUAL		926.554,08	926.554,08	926.554,08	926.554,08	926.554,08	926.554,08	926.554,08	926.554,08	926.554,08
COBROS VENTA SELECTIVA		97.000,00	97.000,00	97.000,00	97.000,00	97.000,00	97.000,00	97.000,00	97.000,00	97.000,00
COBROS REVISIÓN DE PRECIOS	FACTORES LINEALES									
A PERSONAL	0,011755			10.891,64	21.783,29	32.674,93	43.566,57	54.458,22	65.349,86	
B COMBUSTIBLES	0,002663			2.467,41	4.934,83	7.402,24	9.869,65	12.337,07	14.804,48	
C MANTENIMIENTO	0,003972			3.680,27	7.360,55	11.040,82	14.721,09	18.401,36	22.081,64	
D OTROS no revisables	0,002363			2.189,45	4.378,89	6.568,34	8.757,79	10.947,24	13.136,68	
SUMA COBROS ANUALES		1.023.554,08	1.023.554,08	1.042.782,86	1.062.011,63	1.081.240,41	1.100.469,19	1.119.697,96	1.138.926,74	
TASA DE DESCUENTO MANCOMUNIDAD JUL-DIC 2022										
TASA DE DESCUENTO MANCOMUNIDAD	0,042130									
FLUJO DE CAJA		166.481,07	149.444,47	151.276,58	152.740,76	153.829,00	154.533,10	154.844,68	152.555,68	
	1,042130	1,042130000000	1,0860349369000	1,1317895887916	1,1794718841674	1,2291630346474	1,2809476732971	1,3349139987731	1,3911539255414	
FLUJO DE CAJA DESCONTANDO AL ORIGEN		159.750,77	137.605,59	133.661,40	129.499,28	125.149,39	120.639,67	115.996,00	109.661,25	
NECESIDAD DE INVERSIÓN		-901.500,00	-741.749,23	-604.143,64	-470.482,25	-340.982,96	-215.833,57	-95.193,90	20.802,09	130.463,34